

DOKTOREGO TESIETAN ZUZENDARIKIDE IZATEKO IRIZPIDEAK

Doktorego programa bateko kide ez diren UPV/EHUko doktoreak eta unibertsitateak ez diren erakundeetako doktoreak zuzendarikide izan ahalko dira doktorego tesietan, baldintza hauetarakoren bat, gutxienez, betetzen badute.

1. Ikerlanaren ebaluazio positiboa izatea (ikerketako seiurtekoa), Ikerketa Ebaluatzeke Espainiako Batzordeak (CNEAI) edo baliokideak egina.
2. Tesiaren beste zuzendarikideetako batek ikerlanaren ebaluazio positiboa (ikerketako seiurtekoa) duela egiaztatzen badu, Ikerketa Ebaluatzeke Espainiako Batzordeak (CNEAI) edo baliokideak egina, ebaluazio hori ez duen doktorea ere zuzendarikide izan ahalko da, egiaztatzen badu badituela ondoren aipatzen diren ekarpenetako bost, gutxienez :
 - Izen handiko aldizkarietako argitalpen zientifikoak, eragin indizearekin.
 - ISBN daukaten liburuak eta liburuetako atalak (testu liburuak, dibulgazio liburuak eta biltzarretako aktak izan ezik), izen handiko argitaletxeetan argitara emandakoak eta kanpoko ebaluatzaileek berrikusiak.
 - Ustiatzen ari diren patenteak edo software erregistroak, salerosketa kontratuaren edo lizentzia kontratuaren bitartez frogatuak.
 - Deialdi publiko eta lehiakorretan lortutako ikerketa proiektuen zuzendaritza.
 - Artearen, ikus-entzunezkoen eta diseinuaren arloko ekarpenak, banakako zein taldeko erakusketak, saritutako lanak, eta kontserbazio edo zaharberritze lanak.

Aipatutako baldintzez gain, beste hauek ezartzen dira, 2. puntuari lotuak, jakintza adar bakoitzerako:

- Artea eta Giza Zientziak: 2. puntuari zehaztutako oinarritzko irizpidez gain (aldizkarietako artikuluei buruzkoak), kontuan hartuko dira argitalpenaren eragin indizea eta CNEAIk jasotako irizpideak. "En la valoración de los artículos se atenderá al medio de difusión empleado, aceptándose como indicio de calidad la publicación en revistas de reconocida valía. La inclusión de las revistas en bases de datos internacionales se considerará como una referencia de calidad. Podrán considerarse también artículos publicados en revistas que ocupen posiciones relevantes en SCOPUS, otras bases de datos nacionales (ERIH, DICE-CIDOC, etc.), o en aquellas revistas acreditadas por la FECYT..."
- Zientziak: gorago aipatu diren ekarpenak hartuko dira kontuan, azkena izan ezik ("artearen, ikus-entzunezkoen...")
- Osasun Zientziak: 2. puntuari aipatutako merezimenduen artetik honako hauek hartuko dira kontuan jakintza arlo honetan:
 - Izen handiko aldizkarietako argitalpen zientifikoak, eragin indizearekin.

- Ustiatzen ari diren patenteak edo software erregistroak, salerosketa kontratuaren edo lizentzia kontratuaren bitartez frogatuak.
- Deialdi publiko eta lehiakorretan lortutako ikerketa proiektuen zuzendaritza.
- Gizarte eta Lege Zientziak: 2. puntuari aipatutako artetik, ez da hartuko kontuan honako hau: artearen, ikus-entzunezkoen eta diseinuaren arloko ekarpenak, banakako zein taldeko erakusketak, saritutako lanak, eta kontserbazio edo zaharberritze lanak. Gainera, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - UPV/EHUko irakasleen kasuan, 2. puntuari aipatutako bost ekarpenetatik bi, gutxienez, WOS, Scopus, IN-RECS edo IN-RECJ indizeetan agertzen diren aldizkarietan argitaratutakoak izan behar dira.
 - Unibertsitateak ez diren erakundeetan lan egiten duten doktoreen kasuan, curriculumak hartuko dira kontuan, bereziki berrikuntza edo garapena moduko eremuetan egindako ekarpenak, eta zuzendarikide izan nahi duten tesiaren arloan daukaten esperientzia.
 - UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sareko Latinoamerikako unibertsitateetako irakasleen kasuan curriculumak ebaluatuko dira, kontuan hartuta ikerketaren gaiarekin duten lotura eta esperientzia, gai horrek zerikusirik badu zuzendarikide izatea eskatzen duen pertsonaren testuinguru kulturalarekin.
- Ingeniaritza eta Arkitektura: 2. puntuari aipatutako merezimenduez gain, honako hauek hartuko dira kontuan jakintza arlo honetan:
 - Zuzendutako tesiak (tesi bat merezimendu bat da, argitalpenak bezala). Bestalde, zuzendarikide izateko proposatzen den pertsonak aurkeztu beharreko bost ekarpenetatik (2. puntuari aipatutakoak eta arlo honetako bereziak) hiru, gutxienez, seiurtekoa eskatzeko ekarpen moduan aurkeztu ahal direnetakoak izan behar dira.

Orobat, eta aldi batean, desagertutako doktorego programetako tesien kasuan, zuzendaria ez bada tesia gaur egun inskribatuta dagoen programakoa, zuzendarikide izan ahalko da, betiere beste zuzendarikidea doktorego programako doktore bat bada.